

4. AKTA

2001eko martxoaren 26an ospatutako **GOBERNU BATZORDEA**.

Pasaiako Hirian eta bertako Udaletxean, bi mila eta bateko martxoaren 26an, lehenengo deialdian eta Joan Karlos Alduntzin Juanena Alkate jaunaren presidentzian, Joseba Belaustegi Cuesta Behin Behineko Idazkaria bertan delarik, hurrengo zinegotziak bildu dira:

Joseba Xabier Portugal Arteaga j.
Obdu Lorenzo de Dios a.
Rikardo del Pozo Gil de Albornoz j.

arauz kurtsatu eta publikatu den deialdiaren arabera Gobernu Batzordea ospatzeko. Ez du adierazi ezin etorria Anjel Ouviaña Vidal jaunak.

Lehendakarizak konstataturik Gobernu Batzordea legez osatzeko behar hainbat partaide etorri dela, batzarraldia irekitzat eman du 12:45etan, ondoren Gaizerrendako gaiak aztertzeari ekinez.

1.- Aurreko batzarraldiko akta, 3.a, 01-2-26koa irakurri eta onartzea.

Bertakoen kontsiderazioan jarririk atalburuko akta, Gobernu Batzordeak erabaki du bere osoan ontzat eman eta dagokion Akta-liburuan transkribatzea.

2.- 2/01 zka. daraman kontu-fakturen zerrenda.

Gobernu Batzordeak erabaki du ontzat ematea 2/01 zka. daraman kontu-fakturen erlazioa, HOGEITA SEI MILIOI LAUROGEITA BAT MILA ZAZPIEHUN ETA BERROGEITA HEMEZORTZI (26.081.758,-) pezetakoa, ondorengo zuzenketak egin ondoren:

- 246-000-2001 erregistro zenbakia daraman fakturan 16. orrialdean, Calderería Jaizkibel, S.L. enpresak luzatuan: 153.677,- pta. dioen lekuan esan behar du: emisio data 2001-01-30, emisorea SETALDE, inportea 103.286,- pta.
- 4. orrialdean, 31-000-2001 erregistro zenbakia daraman fakturan: emisorea Seín Irastorza, Javier dioen lekuan esan behar du: Isulan.

3.- Udal enplegatuek egindako kilometro-kopurua.

Gobernu Batzordeak erabaki du ONTZAT EMATEA JOAN MARKOS ONEKA LABIANO udal-enplegatuaren 2001eko otsaileko desplazamendu-gastuak, 31.968,- pezetakoak, 888 km/36 pta. egitearen emaitza, Eusko Jaurlaritzaren otsailaren 2ko 16/93

Dekretuko 14. artikulua araberan, indarrean E.F.A.P.E.B.A.E.-ko IV-6 Ebazpen iragankorrari buruzkoaren

4.- San Pedro 2.01 Morales Oliver-Esnabide k. Hiri Area berriro urbanizatzeko obraren 2. eta 3. ziurtagiriak.

Gobernu Batzardeak erabaki du ontzat ematea “San Pedro 2.01 Morales Oliver-Esnabide k. Hiri Area” berriro urbanizatzeko obraren 2. eta 3. ziurtagiriak, Joan Karlos Lapazaran Izargain (Arkitektoa) eta Jose M^a Irazusta Garikano (Aparejadorea) Obra Zuzendari jaunek luzatuak CONSTRUCCIONES DUMBOA, S.A. enpresa kontratistaren alde, hurrenez hurren ZORTZI MILIOI ZORTZIEHUN ETA HAMAZAZPI MILA ZAZPIEHUN ETA LAUROGEITA HEMEZORTZI (8.817.798,-) eta SEI MILIOI EHUN ETA HIRUROGEITA HIRU MILA BOSTEHUN ETA BERROGEITA ZAZPI (6.163.547,-) pezetakoak, D-943/00 Disposamenduaren kargura.

5.- "Ulia Etorbidea eta Azkuene kalea lotzeko bidea" obraren 4. ziurtagiria.

Gobernu Batzardeak, Udal Aorejadoreak alde aurretik aldeko txostena emanik, erabaki du ontzat ematea “Ulia etorbidea eta Azkuene kalearen artean konexio-bidea” obraren 4. ziurtagiria, Eduardo Satostegi Obra Zuzendari jaunak luzatua CONSTRUCCIONES DUMBOA, S.A. enpresa kontratistaren alde HAMAHIRU MILIOI BEDERATZIEHUN ETA LAUROGEITA BI MILA ZAZPIEHUN ETA HIRUROGEITA HAMABOST (13.982.775,-) pezetako inportez, D-824/00 Disposamenduaren kargura.

6.- Pasaiako Udal Antzerki Tailerrari dirulaguntza.

Kultura eta Hezkuntzak 2001eko otsailaren 28an emandako idazkiaren bidez, Zinegotzi Delegatuaren proposamenez, Gobernu Batzardeak bertako zinegotzien aho batez,

E R A B A K I D U

Ontzat ematea 1.500.000,- pezetako pagua PASAIKO UDAL ANTZERKI TAILERRARI 2001eko subentzioari dagokiona. Hau guztia A-197/01 Baimenduaren kargura.

7.- Donibane Eskubaloia Taldeari ezohiko dirulaguntza Donibaneko Polikiroldegia kudeaketarekin jarraitzeko.

Gazteria eta Kirolen Udal Batzarde Informatiboa 2001eko martxoaren 8an egindako proposamenez, Gobernu Batzardeak

E R A B A K I D U

DONIBANE ESKUBALOIARI 703.558,- pezetako aparteko subentzioa ematea aurtengo ekaina arte Donibaneko Kiroldegiaren kudeaketa burutu dezan. Hau guztia “Kirol Entitateei subentzioa 06-481-452-10-01” partidaren kargura eta A-265/01 Baimenduaren kargura.

8.- Oarsoaldeari dirulaguntza.Eskola Kirola.

Gazteria eta Kirolen Udal Batzorde Informatiboa 2001eko martxoaren 8an egindako proposamenez, Gobernu Batzordeak

E R A B A K I D U

OARSOALDEARI 150.000,- pezetako subentzioa ematea 2001erako Eskola Kirolaren Mahaiaren lanaren garapenagatik. Hau guztia A-83/00 Baimenduaren kargura.

9.- "Haurrentzat Udaleku Irekiak" egiteko Urtxintxa Eskolarekin egindako kontratuaren luzapena.

URTXINTXA ESKOLA-GIPUZKOAri “Haurrentzat Udaleku Irekiak” Programaren kontratua 2000ko apirilaren 18an esleiturik.

Ikusirik kontratazioaren oinarriko balio izan zuten Baldintza Pleguan ezarritakoaren arabera, kontratuaren iraupena 2001 eta 2002 urteetara luzatuko litzateke, bi kasuetan Gazteria eta Kirolen Sailak aurreko urteko Koloniei buruz egindako ebaluazioa ona bada, Euskal Herriko Autonomi Erkidegoko KPIri dagokion igoera aplikatuz.

Ikusirik gaiari buruz Gazteria eta Kirolen Sailak 2001eko otsailaren 20an luzatu txostena aldekoa dela.

Kontuan izanik halaber 2000ko KPI %3,8koa izan dela.

Kontuan izanik organo hau kompetentea dela 5 milioitik goragoko eta 30 milioitik beheragoko kontratuak esleitzeko, Aurrekontu Exekuzioko Arauaren arabera, Gobernu Batzordeak bertako zinegotzien aho batez

E R A B A K I D U

LEHENENGO.- URTXINTXA ESKOLA-GIPUZKOArekin suskribatutako kontratua 2001. urtera arte luzatzea “Haurren Udaleku Irekiak” Programa burutu ahal izateko.

BIGARREN.- 2001eko aurrekontua 5.360.577,- pezetakoa da eta abonua hurrengo eran egingo da:

- Ekainaren 25ean inporte osoaren %60.
- Uztailaren 25ean inporte osoaren %20.
- Gainerako %20 dagokion memoria-ebaluazioa aurkeztean ordainduko da.

HIRUGARREN.- Gastua indarreango udal aurrekontuko 07-226-457-00-06 partidaren kargura joango da.

10.- Ondare-erantzukizunaz hainbat erreklamazio.

Ikusirik LUIS VILLASANTE jaunak egin erreklamazioa, SS-5386-AV matrikula duen bere ibilgailuaren aurre aldeko kolpeleunkarian izan duen kolpeari buruzkoa, konponketa eskatuz.

Ikusirik Udaltzaingoaren txostena eta baita espedientean agertzen den dokumentazioa non gertatzen den kalte alegatuak bere maniobra baino lehenago ibilgailua erretiratu zuen garabiaren arduradunak ohartu baitzituen.

Gobernu Batzordeak bertako zinegotzien aho batez

E R A B A K I D U

LEHENENGO.- LUIS VILLASANTE jaunak egin erreklamazioa erretiratzea ez delako geratu kreditatua aipatu kaltean eman zirela.

BIGARREN.- Akordio honen berri interesatuari ematea legozkiokeen errekurtsioekin.

11.- Trintxer Kulturalari dirulaguntza.

Kultura eta Hezkuntzaren Udal Batzorde Informatiboaren 2001eko martxoaren 12an egindako proposamenez, Gobernu Batzordeak bertako zinegotzien aho batez,

E R A B A K I D U

TRINTXER KULTURALARI hurrengo subentzioak ematea ondorengo Arte Lehiaketak antolatzeko:

- 5. “Pasaiako Hiria” Argazki Lehiaketa.....180.000,-pta.
- 5. “Pasaiako Hiria” Pintura Lehiaketa.....160.000,- pta.

Hau guztia indarreango udal aurrekontuko A-274/01 Baimenduaren kargura.

12.- Alkartasuna Dantza Taldeari dirulaguntza.

Kultura eta Hezkuntzaren Udal Batzorde Informatiboaren 2001eko martxoaren 12an egindako proposamenez, Gobernu Batzordeak bertako zinegotzien aho batez,

E R A B A K I D U

ALKARTASUNA DANTZA TALDEAri 511.000,- pezetako subentzioa ematea Gipuzkoar Aurrekuaren Euskadiko XXI Txapelketa antolatzeko.

Hau guztia indarreango udal aurrekontuko A-273/01 Baimenduaren kargura.

13.- Ikasjaia, S.L.ri dirulaguntza.

Ikusirik IKASJAIA, S.L.-k aurkezturiko dokumentazioa Trintxerpe auzoa sortzeaz egindako dokumentalaren gidoia aurkezteko eta aipatu proiektuaren aurrekontu zehaztua, non zehazten den koproduktoreak behar direla.

Kultura eta Hezkuntzaren Udal Batzorde Informatiboaren 2001eko martxoaren 12an egindako proposamenez, Gobernu Batzordeak bertako zinegotzien aho batez,

E R A B A K I D U

LEHENENGO.- IKASJAIA, S.L.-ri 250.000,- pezetako kantitatea ematea aipatu gidoia erredaktatzeko Koprodukzioaren Konbenioaren markoan kofinantziazioa aurreratzeko.

Hau guztia indarreango udal aurrekontuaren A-306/01 Baimenduaren kargura.

Eta aztertzeke beste gairik ezean, 14:00etan, batzarraldia amaitutzat eman da, honen eduki guztia akta honetan jasoz, hau Alkate jaunak eta nik, Idazkari bezala ziurtatuz, sinatu dugularik.